

## HAUR HEZKUNTZA. AHOZKO HIZKUNTZAREN PROGRAMAZIOA

Haur Hezkuntzan, ahozkoatasuna egunero sistematikoki lantzen dugun arloa da. Etapa honetan garrantzia berezia du, haurrak hizkuntza bereganatzen ari direlako eta batzuentzat, euskara bigarren hizkuntza delako. Aho hizkuntzaren menperatzeak zerikusi handia du gainontzeko arloen barneraketarekin, hau da, funtsezko tresna bilakatzen da bertze arloak bereganatzeko ere.

Errutinak, bizipenak azaltzea, aktibitate baten aurkezpena egitea, nahien eskaera... urte osoan zehar, egunero landuko ditugun aktibitateak dira.

Aho hizkuntza lantzeko baliabide ugari erabiltzen ditugu besteak beste ipuinak, olerkiak, kantak, horma-irudiak, etab.

### HELBURUAK

1. Aho mintzairaren bidez sentimenduak, nahiak, bizipenak eta ideiak adieraztea testuinguru eta egoera desberdinetan.
2. Taldearen aurrean hitz egiteko gai izatea.
3. Txandak errespetatzen ikasi eta bertzeak solastatzen direnean errespetuz aditzea.

### SEKUENTZIALIZAZIOAK

#### A.-ERRUTINAK

Gelako eguneroko bizitzan errutina multzo bat lantzen dugu sistematikoki. Errutina multzo hau hizkuntza garatzeko funtsezko errekurtsio bilakatzen da gure eguneroko martxan.

Urte osoan zehar, goizero, borobila egiten dugunean lantzen ditugu. Errutinen artean, agurrak, nor etorri den, nor ez den etorri, zenbat ez diren etorri, eguna eta eguraldia, etab. aipatzen ditugu.

Antolaketa	
<b>1.- Agurra:</b>	Hiru, lau eta borts urtetan, arduradunak bere kideei, banan - banan eskua eman eta: - Egunon .....! erraten die. Honek, - Baita zuri ere! erantzuten dio.
<b>2.- Asistentzia</b>	<p><b><u>(Nor etorri da / Nor ez da etorri )</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <u>Hiru urte</u>: Bakoitza eskolara ailegatzan denean, bere argazkia - izena hartu (1. hiruhilabetea) eta "etxetik" "eskolara" eramaten du. (2. eta 3. hiruhilabetea izena bakarrik eramanean dute). Ondotik, borobilean esertzen direnean, arduradunak banan - banan zenbatuko ditu eta konturatuko gara bakarren bat falta den edo ez. Norbait falta bada, honen izena aipatzen da. Falta direnak kontaktzen ditu eta dagokion zenbakia jartzen dio. Falta direnei buruzko aipamena egiten da: Norbaitek badaki ..... zergatik ez den etorri?, Gaixorik egonen da?...</li> <li>• <u>Lau urte</u>: Arduradunak pasatzen ditu izenak etxetik eskolara: - ..... etorri da? galdera eginez. Honek: - Bai etorri naiz, edo: - Bai hemen nago, erranez erantzunen du. Etorri ez direnak kontaktzen ditu eta dagokion zenbakia jartzen du. Hiru urtekoekin bezala, etorri ez denaren aipamena egiten da.</li> <li>• <u>Borts urte</u>: Lau urtekoekin bezala egiten da, baina oraingoan arduradunak etorri diren ikasleen kopurua ere erraten du eta zenbakia ere jartzen du. Aurrekoetan bezala, etorri ez denaren aipamena egiten da.</li> </ul>
<b>3.- Data</b>	<p>§ <u>Hiru urte</u>: "Arra" erabiliz, tokatzen den asteguna aipatzen da. Arduradunak honako esaldi hau erran behar du: "gaur..... da". Bertze aldetik, egutegian, arduradunak aitzineko eguna gometxa batez tapatzen du eta tokatzen den eguna borobiltzen du.</p> <p>§ <u>Lau urte</u>: "Arra" eta egutegia berdin erabiltzen dira. Arbelan, hilabetea, zenbakia eta asteguna idazten du irakasleak.</p> <p>§ <u>Bost urte</u>: Egutegia berdin erabiltzen da eta arduradunak esaldi osoa erranen du. Adb. "Gaur, urtarrilak 13, ortzeguna da". Egutegiari begira tarteka aipamen bereziak egiten dira (zenbatgarren astean gaude, asteak zenbat egun dituen, ze egun izan zen atzo, herenegun, ze egun izanen den bihar, etzi....zenbat falta den hilabetea akitzeko, e.a.). Ondotik, arduradunak esaldi osoa erranen du eta irakasleak arbelean idatziko du eguna.</p>
<b>4.- Eguraldia</b>	Egiten duen eguraldia erranen du arduradunak. Adb.: "Gaur lainotsu dago", "Gaur euria ari du", "Gaur eguzkia dugu", "Gaur izotza egin du"...

## B.- BIZIPENAK

Batez ere astelehenetan asteburukoa kontatzen dute baina borobilean, edozein mementotan (goizean, hamaiketakoa egiterakoan, errekreo ondotik, e.a.) gertatzen zaizkien gauzak azaltzen dituzte.

Asteburuan egin dutenaren kontaketa:

- Hiru urte: Asteburukoa kontatzea oso zaila egiten zaie eta horregatik beraiei hurbilagoak zaizkien gaiez galdetzen diegu: loa eta gosaria adb. Nolako loa egin duzue? (handia, ttikia...), Zer gosaldu duzue?
- Lau urte: Asteburukoari buruz galdetzen zaie baina laguntza moduan atzokoari lotzen zaio. Atzo zer egin zenuten?
- Bost urte: Asteburuan egin dutena kontatzen dute, eta bakoitzak, libreki, aukeratzen du atzokoa (igandekoa) kontatu, larunbatekoa, larunbat eta igandekoa edo eta egun bat hartu, eta goizez eta arratsaldez egin dutena kontatu.

## D.- HARREMANAK BIDERATZEKO ARAUAK / ESAPIDEAK

Egunean zehar umeen eta ume-helduaren arteko harreman sozialak (barkamenaren eskaera, baimenaren eskaera, nahiaren adierazpena,...) bideratzeko erabiltzen diren esapideak lantzen ditugu.

Horretarako zenbait formula erabiliko ditu, besteak beste:

- ..... naiteke / dezaket?
- Barkatuko didazu?
- Emango didazu ..... mesedez!

Egunean zehar egoera ezberdinak errepikatzen dira non esapide hauek behin eta berriro erabiliko ditugun.

## E.- AKTIBITATE BATEN AURKEZPENA

Irakasleak, aktibitate baten azalpena eman ondoren, gelako arduradunari edo bertze ikasle bati azalpena errepika dezan eskatuko dio. Horretarako lokailu hauek erabiliko dira (lehenengo, gero, ondotik, akitzeko...).

Lan hau egiteko lehenengo .....

gero .....

ondotik .....

akitzeko .....

Horretarako hurrengo material hau beharko dugu.....

## F.- IPUINA

Ipuina hizkuntza (bai ahozkoa bai idatzizkoa) trebatzeko egunero erabiltzen dugun beste baliabide da. Ipuinak gaitasun komunikatiboak lantzeaz gain, gaitasun kognitiboak, afektiboak, etab lantzen laguntzen digu.

Ipuina lantzen dugunean, birkontatze hutsean gelditu ez dadin, saiatzen gara horretarako maiz ulermen aktibitate batzuk egiten.

Ipuinaren ulermena errazteko estrategia bat baino gehiago erabiltzen ohi ditugu:

- Hipotesiak eraiki (ipuinean gertatuko denaren inguruan).
- Izenburuak asmatu (ipuinaren ideia garrantzitsuan oinarriturik izenburuak asmatu).
- Ipuinaren sekuentzia batzuk eman eta ordenatu.
- Bukaera berriak asmatu (ipuin osoa kontatu baino lehen, beraiek asmatutako bukaerak kontatu). Autoreak emandako bukaera eta beraiek asmatutakoak alderatu.
- Pertsonaia baten jokaera dela eta, ahozko deskribapena egin (gaiztoa, eskuzabala), marrazkia, etab.
- Sinonimoak eta antonimoak landu.
- Pertsonaien sentimenduen proiektzioa egin (gaitasun afektiboak landuz).

Eskolan irakurtzeak aho hizkuntzaren bereganatze lan honetan daukan garrantziaz oharturik, umeei eskolako liburutegitik ipuinak edota bestelako liburuak mailegu moduan, kontrol orri batekin, etxera eramateko aukera ematen zaie.

## G.- OLERKIA

Olerkia egunero lantzen dugun errekurtsio literario bat da. Gai bakoitzarekin lotuta 3-4 olerki aukeratzen ditugu umeei irakurtzeko. Olerkia maiz irakurtzea eta lantzea, gehienbat haurrek gozatzeko edota tarte goxo bat pasatzeko asmoarekin egiten dugu. Bidenabar, hiztegia aberastu, memoria landu, eta besteen aurrean errezitazioa lantzeko aukera ematen digu. Olerkiaren inguruan zenbait galderatxo egiten ditugu: gustuko duzue?, zeri buruzkoa da?, luzea ala motza da?, errimarik badu?....) Olerkia ahoz lantzeaz gain, hizkuntza idatzia lantzeko erabiltzen dugu. Ondoko orrietan olerkia nola landu azaltzen dugu.

## H.- HORMA-IRUDIA

Horma-irudiak elkarrizketak sortzeko aukera ematen digu. Hain zuzen, umeekin landu nahi ditugun hizkuntza eduki sorta baten inguruan sortzen da solasaldia. Hona hemen maiztasunez lantzen ditugun edukiak:

- Horma-irudian oinarriturik agertzen diren **gertaeren kontaketa** (adibidea ulergarriagoa izateko suposa dezagun lantzen ari garen horma-irudia Inauteriekin loturik dagoela)
  - *Partaideak izendatzea* (Nortzuk daude? Zer dago?...)
  - *Aurrekoaren xehetasunen aipamena* (Nolakoa da ....? , Zertan ari dira?...
  - *Gertakizun zehatz baten sekuentziaren kontaketa* (Zer egin ote dute ume horiek horrelako mozerro bat prestatzeko?)
  - *Konparaketak egitea* (Zein dago urrunago?, zertan ezberdintzen dira?...)
  - *Gertakizun baten esanahi nagusia ateratzea* (Zer izen jarriko zenioke horma-irudi honi?)
- *Arrazonamendu logikoa* lantzeko baliagarriak diren galdera sortak (Zergatik gustatzen zaizkie inauteriak?, Nola sortu ote dute horrelako apaingarria?)
- *Gertakizunak iragartzeko* baliagarriak diren galdera sortak (Zer gerta dakioke?, Zer egingo zenuke?...)
- *Horma-irudiko partaideen sentimendu, esperientzien proiektzioa*: Nola uste duzu pasatzen ari direla hor daudenak?, Zer sentituko ote du hor dagoen horrek?

Galdera hauek guztiek aho hizkuntza lantzeko aukera ematen digute, euskaraz egiten ditugun okerrak zuzentzeko,....

## I.- XORROXIN IRRATIA

Eskolara iristen zaigun garaian lantzen dugu. Ikasle bakoitzak bere buruaren aurkezpena egiten du (izena, adina, non bizi den, zer gustatzen zaion, muxuak nori bidaltzen dizkion...). Eta honekin batera, lantzen ari garen gaiaren inguruko kantu, olerki, ipuin, e.a. erabiltzen ditugu irratiz azaltzeko. Aldi berean, Lehen Hezkuntzakoek egiten duten kantu eskaintzan, asmakizunetan edo zenbait galderari erantzuna ematen parte hartzen dute.

## IPUINAK LANTZEKO ARIKETA MOTAK

- Ikasleei ipuin bat irakurtzen hasten gara. Une batean gelditu egiten gara eta beraiei eskatuko diegu ipuin horren bukaera ematea. Ematen dituzten bukaera guztiak arbelean idatziko ditugu. Ondotik ipuina bukatuko dugu eta autoreak ematen dion bukaera beraiek ematen dioten bukaerarekin bat datorren ikusiko dugu.  
Ariketa hau egiteko **ipuin** egokiak hauek izan daitezke:
  - \* Txirrita eta inurria
  - \* Biligarroa eta katagorria
- Izenburua asmatu. Hasi aitzinetik irakurketaren helburua aipatuko diegu. Ipuin bat irakurtzen diegu. Bukatzen dugunean ipuinak ze izenburu izan dezakeen galdetuko diegu. Beraiek ematen dituzten erantzunak arbelean idatziko ditugu edo beraiei paper batean idaztea eskatuko diegu.
- Amonatxoaren ipuina: ipuina lantzeko pausoak jarraitu.
  - \* Binetak eman eta beraiek ordenatuz ipuina osatu.
  - \* Ipuinaren sekuentzietan dauden hutsuneak bete.
  - \* Ipuina denen artean idatzi. Sekuentzi guztiak elkartu ipuina osatzeko eta banan - banan etxera eraman irakurtzeko
- Liburutegian dauden ipuinak, mailegu moduan, kontrol orriarekin, etxera eramateko aukera eman.
- Fitxategi bat egin ezagutzen dituzten ipuinen pertsonaiekin. Izen guztiak arbelean idatziko ditugu. Ume bakoitzak bat aukeratuko du eta hori marraztuko du eta izena inprentaz idatziko du.

## **OLERKIA**

### **AHO HIZKUNTZA**

1. Olerkia lantzeko hiztegia aurkeztu.
2. Olerkiko animalien ezaugarriez solastatu (deskribapenak egin).
3. Hitzzen hasiera, bukaera, luzera euren izenekin konparatu. Txaloen bidez esaldiak zenbat hitz dituen neurtu.
4. Olerkian, izenak eta soinuak nahastuz, hutsuneak bete.
5. Olerkia luzatu bertze animaliak sartuz.
6. Ikusi-makusika jostatu animalien izenekin, txaloka errefortzatuz.
7. Zerrendak egin: za ..., ka
8. Dramatizazioa, mimika, onomatopeiak asmatu
9. Ezaugarriak emanez, animalia baten deskribapena egin. Bertzeek zein den asmatu beharko dute.

### **HIZKUNTZA IDATZIA**

1. Marrazkia / hitza, hitza / marrazkia sinboloak interpretatu.
2. Norabidea kontuan hartu (ezkerretik eskuinera, goitik behera).
3. Hitzzen kopiatzea.
4. Hitzak edo soinuak kenduz olerkia osatu, hasieran manipulativoki eta gero paperean.
5. Hitz edo soinurik gabe olerkia osatzea, batzuk erreferenteak erabiliz (paretako hiztegia, hiztegitxoa, olerkia bera ...) eta bertzeak deus gabe.

## **“Bizipenaren kontaketak”**

### **Proiektuaren aurkezpena**

Elkarrizketaren bidez gure helburua aurkeztuko diegu: “Zer bazkaldu duten” modu eta ordena egoki batean azaltzearen beharra bertzeek uler dezaten. Honetarako, lokailu ezberdinak aipatuko dizkiegu.

### **Ikasleak zer dakiten ikusi**

Bazkaldu ondoren borobilean eserita daudela, saioa bideoz grabatu.

### **Kontratu didaktikoa finkatu.**

Bideo saioa beraiekin ikusi ondoren egokiak eta desegokiak diren adierazpenak eta jarrerak eztabaidatu ondorioak ateratzeko.

### **Ikasekta tailerrak**

-Gelara bideoz grabatutako eredu egokiak eta ezberdinak ekarri.

-Haiek ikusi ondoren, helburu hauek landuko dira:

4.1 Borobilean ongi esertzea.

4.2 Isiltasuna lortzea hitz egiten hasi aurretik.

4.3 Hitza hartzean txanda errespetatu.

4.4 Begiradaren garrantzia: hizlariaren begirada entzulearen begirada

4.5 Diskurtsoaren modu eta ordena azaltzea :

2 urte: Diskurtsoaren moduari emango diogu garrantzia. Adin honetan bazkal ondoren siesta egiten dutenez eta bazkal ondoko borobila egiten ez dutenez, gosariari buruz hitz egingo dugu. Zer eta nola hartzen duten galderak eginen zaizkie.

3 urte: Adin honetan ondoko serie hau landuko dugu: lehendabizi, gero eta azkenik, postrerako. Bestalde, jakien ezaugarriak landuko ditugu (horien ordena eta lexikoa).



4 urte: Hiru urtekoekin landutakoaz gain, deklinabide markak sartuko ditugu, baita ondoko ezaugarriak ere: “hagitz ona zegoen, “aunitz gustatu zait”, “dena jan dut”, “pixka bat utzi dut”....

## **Berrikuspena eta 2. ekoizpena**

- Aipatutako helburuetan oinarrituz, kontrol zerrenda finkatuko da.
- Aipatutako helburu guztiak landu eta barneratu ondoren, 2. bideo saioa grabatuko da.
- 2. bideoaren berrikuspena kontrol zerrendaren arabera.

## **Azken ekoizpena**

- Kontrol zerrendan finkatu diren helburuak betetzea.